

JOXE ZABALA, LEZOKO ITSASLAPURRA

- JOXE ZABALAREN HISTORIA



XVIII.mendeko erdialdean gaude, gipuzkoar itsasaldeko Lezo izeneko herri ttikian.Egia esateko herri baino gehiago auzo hitza erabili beharko genuke,Lezo Hondarribiako auzotxo bat besterik ez bait zen.Hala ere Lezok bazituen udalordetza,eta bere arau bereziak,batez ere Pasaiako badi- an duen kaiari dagozkionak.

Lezo oso leku polita eta aproposa zen,Jaizkibel izeneko mendiaren magalean alde batetik,eta bestetik kaia eta Oiartzun ibaia,Errenteriarekin muga ipiniz.Ez zen haundia ez lurrez eta ez kaskoz,udaletxea, Pasai Donibanerekin batera zuen San Juan Bataiatzailea izeneko eliza goiko plazan eta behekoan Santo Kristo izeneko ermita, zazpi euskal herritan zeharo ospetsua zen Santo Kristo mirakuluegilea.Hamar bat etxe


bi plazak inguratuz eta bi edo hiru ostatu edo taberna.Hauxe zen gure Lezo garai hartan,eta paregabeko eskenario honetan bizi zen Joxe Zabala,Zabarreko leinuaren azken semea,Kantauri itsasoko itsas- lapur bildurgarria,euskal itsasoetako pirata adoretzu eta famatuena.

Bere ekintza hausarta eta adoretzuak ahoz aho,belarriz belarri zebiltzaten,eta euskal itsasaldetako merkatariek izugarriz- ko errespetoa zioten.Egun batean espaniar merkatalontzi bat hondo- ratzen zuen,bere zamaz arindu ezkeru;urrengoan beste puntan azal- tzen ingeles koroaren ontzi bat erasotuz eta sendi aberatseko pri- sionerrak hartuz,geroxeago truke probetxagarri baten bidez urrezko dukate pila eskuratuz.Gaur Mundaka aurrean,bihar Baionako barran eta etzi?,auskalo agian Donostiako uretan,edo Pasaiako badien,edo Getariako zuloan.Jakitera !

Tximista baino azkarrago, enbata baino bildurgarriago, ha- ritza baino sendoago,...holaxe zen Joxe Zabala,Lezoko itsaslapurra, hamaika euskal itsasoetako jaun eta jabea.Ziotenez,hiru barku zitu- en:ILARGI,EGUZKI,eta IZAR,eta hiruretan beti zutik,aizearen kulunkan, Zabarreko leinuaren bandera beltza eta zuria bi banda horizontale- tan,eta beraren erdian Mikelatsen zortziburu gorria.Hauxe zen bere entseina,hauxe marinela,arrantzale eta itsasmerkataria guztiak ika- ratzen zituen bandera.

Bera, bestaldetik, gizon indartsu eta garaia zen, ederra eta sasoitsua. Baina nahiz eta makina neska gazte eta lirain bere atzetik ibili, ez zuen sekula inor emaztetzat hartu. Gaztez zen oraindik, hogeitahamabost bat urte ingurukoa, eta bere familiak betidanik Kale Nagusia eta Kaiaren artean zuen Zabarra izeneko jauregian bizi zen bere ama zahar eta hamabost bat zerbitzari leialekin.

Anttoni, bere ama, gazte gaztetik alargundua ez zen ordutik Zabarretik atera, eta auzolagunek ziotenez ekaitzeko gauetan balkoian egoten zen itsasora begira, euskal doinu zahar eta tristeak kantatuz, agian bere senarra Joanot Zabala itsas hondoko hondarretara eramane zuen ekaitz ikaragarri hura gogoratu nahiean.




Joanot Zabala, Joxeren aita, itsaslapur ospetsu eta bildurgarria izan zen baita ere. Bere lau barkuak tximista bezain azkarrak, eta trumoiak bezain bildurgarriak ziren. Bai, lau ziren bere itsasontziak, aurreko hirurak eta ATARRABI izenekoak, berarekin eta tripulazio osoarekin ekaitzeko gau madarikatu hartan itsas hondora, arrai-

ei jan ematera, joan zen barku eder hura. Beren barkutan, mastil luzeenetatik zintzilik Zabarreko leinuaren bandera zuri-beltza eta beraren erdian zazpi euskal lurraldeak seinalatzen zituen Atarrabiren zazpi puntatako izar orlegia.

Joanot kapitainak beti eramaten zuen zazpi puntadun izar orlegia berarekin Mari jainkosaren seme baiezkorraren babesa eta laguntza bereganatu nahien. Hamar urtetan ibili zen itsasoan bere bandera aizearen jostailu eta erasotuen ikara zelarik, hamar urte alde batetik bestera bere ikurra Laredo eta Santoñatik Bokaleko atteetaraino eramanez, hamar urte Atarrabi jainko babesle eta lagun zuelarik.

Baina kantu eta bertso zaharrek diotenez, behin OLAGARRO HAUNDIAREKIN egin zuen topo Ziburu aurrean. Berak ondo zekien Olagarro Haundia jainkoen babesean zegoela, ezin zela ikutu ere egin, baina hala ere bere burua makurtzen ez zekien gizonak, harrokeriak jota, arpoia hartu eta itsas pizti majikoa zauritu egin zuen. Piztizarrak izugarrizko orrua botaz, eta bere odol beltzak Juanoten ontziburua zen ATARRABI izeneko barkuaren branka ilunduz, berak bere garroekin altxatzen zituen olatu apartsuen artean urperatu zen. Joanoten ezpainenatik karrasi garailea sortzen zen bitartean, bere tripulazioko gizonen bihotzetan heriotz itzala nagusitu zen.

Hura ezin zitekeen egin, Juanoten harrokeriak bere muga jo izan zuen, eta handik aurrera, ordurarte bere babeslea izan zen Atarrabi jainko baiezkorrak gibela eman zion. Alperrik ibili zen Jainkoaren laguntasuna lortu nahiean, alperrik joan zen Izaro irlara euskararen aztiekin hitzegitera, eta alperrik abiatu zen kaio sakratuen arraztoen atzetik. Dana alperrik, Atarrabi etsaitzat zuen, eta Olagarro haundiaren orru ikaragarria beti zegoen bere belarrietan.



Joanotek ezin zuen bizi, heriotz itzal iluna beti bere atzetik bait zebilen: egun batean porrota erasoaldian, bestean gaitza bere tripulazioko gizonen artean, eta bestetan Amaitzasok bidaltzen zizkion enbata izugarriak. Horrela zebilela, behin Ziburu aurrean ekaitzak harrapatu zituen bera eta bere lau itsasontziak. Aizek aztindu zituen bere mastilak, belak eta banderak, eta baita itsasora bota ere, Itsasok olatu ikaragarriak bidali zizkion, eta lau barkuak goiti behera zebiltzaten apar bizien artean; Ortzik bere tximista zorrotzenak eta ber ostots danbadatsuenak atera zituen zeruari trajeri kolorea emanez, eta urrun urrundik Olagarro haundiaren herio orruak entzuten ahal ziren.

Joanot Zabalak agindu azkar eta egokiak ematen zizkion tripulazioari, eta bere marinela, bere aginduei jarraituz, belak jeisten saiatu ziren, baina alper alperrik dana. Holako batean tximista argitsu batek ontzia bitan moztu zuen; Joanot kapitainak, bere barkuaren brankan zutik, birauak eta irainak botatzen zituen Atarrabi mardikatuz eta jainkoak desafiatuz. Herio irudia nonahi zegoen, marinelek beren burua botatzen zuten uretara salbazioa bilatuz, suak azken mastil eta belen puskak erretzen zituen inpernu hura argituz, eta trumoi danbadean artean Olagarro Haundiaren orru ikaragarriak entzuten ziren trajeria hari soinua jarritz.


Bapatean izugarrizko garro haundi bat sortu zen itsaso haserrearen uren artetik Joanot kapitaina gerritik helduz eta berarekin batera itsas hondoko sakontasun ilunetara eramanez. Urperatu aurretik, eta mirakuluski salbatu ziren beste hiru ontzietako marinelek kontatzen dutenez, Joanotek, hil baino lehen, herio karrasi ikaragarrien artean, hauxe errepikatzen zuen etengabeki: Mikelats mendeka nazazu ! Mikelats mendeka nazazu !!!

Urteak igaro ziren, Joxe, Juanoten seme bakarra, haunditu zen eta prest zegoen Zabarreko leinuaren bidea zuzentzeko. Hortarako, hamabost urte bete izan zituenean, bere amari baimena eta bedeinkapena eskatuz, abiatu zen bere hiru barkurekin Izaro irlara. Han euskararen zerbitzari leialen aurrean, aldaretxo bat eraiki egin zuen eta bertan, lau zikiro zuriren sakrifizioaren bitartez, bere burua, bere ondasun guztiak, bere hiru barkuak eta bere etorkizuna eta bere leinuarena Atarrabiren anaia eta etsai amorratua den Mikelats

izeneko jainko ezezkorraren babespean ipini zituen. Orduetik aurrera Zabarreko bandera zuri-beltzek Mikelatsen zortzi buru gorria eramane zuten, eta Joxe Zabala kapitainaren bihotzean gorroto eta amorruzko ideal bakarra: bere aita mendekatzea, Olagarro Haundia akatzea eta Atarrabiri bere indarra azaltzea. Gorrotozko ideala gorrotozko bizitza batentzako. Hamaika aldiz entzun izan du Olagarro Haundiaren herio orrua, makina aldiz eduki du bere arpoiaren azpian, baina makina aldiz ere ihes egin du harrapatzeko moduan zeukanean. Hala ere Zabala kapitainak ez zuen etsitzen, eta hamaika euskal itsasotan zebilen alde batetik bestera, lapurtuz, akatuz, errez, eta batez ere bere aita zenaren Olagarro Haundia erahiltzailearen arrastoaren atzetik.

Denbora joan, urteak igaro eta beti gauza bera, alde batetik bestera, beraren atzetik, bere zortzi burutako ikurraren bandera zuri-beltzak odeien artean kulunkatuz, airea pailakatuz, eta bitartean bere buruaren gainean kaioak, bere bidea markatuz, bere patua seinalatuz.

- ZABARREKO LEHORRERATZEA



Abuztua zen, eta goiz goizetik eguzkia kanpoan zegoen. Zerua urdin urdina eta itsaso orlegi eta bare barea. Inondik ez zen olaturik ikusten, eta Joxe Zabala kapitainaren itsasontziak Lezoko kaiaruntz zihoazten, emeki emeki itsasorearen aurraren ginetik.


Zabala kapitainaren bihotza arront alai zegoen, pozez beterik, laister bere ama laztana ikusiko bait zuen, laister bere etxean egonen bait zen, laister atsedena ditxo bat izanen bait zuen. Urrutitasunean, Pasaiako badiaren aldetik arrantzaleen txalupatxoak ikus zitezkeen. Huraxe zen bere txoko kuttuna, zazpi euskal herritako kabi maitea.

Laister badiaren barruan zegoen, Lezoko kaia hurbilago zegoen, segituan etxean. Baina berrehun metro falta zirenean Joxe Zabalak hartu zuen bere lehenengo itxaroeza. Zabarreko jauregia, bere jaiotxea, bere kabi kuttuna bista bistan zegoen, baina bere balkoietan, bere sapaian ez zen bere leinuaren bandera zuri-beltza inondik ikusten, ez zen inor bere balkoietan agertzen, ez ziren inondik bere leialen ongi etorritzako karrasiak aditzen,...

Zabarre ixilik zegoen, heriotzaren ixiltasunaz.

Kaian ontziak amarratzen zituzten bitartean, Zabala lau marinelekin, txalupa bat hartuz, Zabarreko ormetaraino iritsi zen. Legorreratu bezain pronto, Zabarreko ate nagusiarekin egin zuen topo. Dana itxita zegoen, inork ez zion aterik irekitzen, bere lehioetatik inork ez zion ongi etorrik ematen. Zabarre hilik zegoen.

Hotzikarak Joxeren gorputzaz nagusitu ziren, eta bere aurpegitik nahigabearen izerdi hezea zirriztratu zitzaion. Bere garunak ez zuen pentsatzen, bere belarriek ez zuten aditzen, bere mintzak ez zekien mintzatzeko... bere begiek atean puntapixa luze batez josirik zegoen pergamina irakurtzen zuen bitartean:



"Erregeak honela zigortzen ditu, enparetatuz, bere erret legeei inolako jaramon egin gabe, erre, lapurtu eta hil egiten dituztenak, eta halaber beraien senide eta zerbitzari fidelak. Jaungoikoak libra gaitzala danok !."

Perutxo Lazon. Hondarribiako Udalaren alkateordea. Erregearen ordezkaria.

Malkoak eta izerdi hotza bere masailetan nahastu ziren, gorrotoa eta amorrazioa bere erraietan. Perutxo Lazon, Lezo Haundiko azken subia, zitala, bilaba, azpisugea, ... ! Euskal jaunko guztien madarikazioa eduki dezazun zure bizitzaren egun guztien lagun ! Mikelatsek eman dezaizun merezi duzun heriotza ! Zakurra, alena, hamai-ka aldiz madarikatua !!!

Ez zuen denbora haundirik izan bere bakarhizketarekin jarraitzeko, bere marineletako batek, Kale Nagusia behatzez seinalatuz, honela abisatu bait zion: Jauna beitzazu hor, Kale Nagusian, Lazonen soldaduak dira, zakur horren gizon armatuak !


Joxek, begirada altxatu zuen bere gizonak esandako tokira, eta hor ikusi ahal izan zituen Perutxo Lazonen gizonak, berrehun bat ziren, seguru aski Hondarribiatik etorrita, eta beraien artean Perutxo bera, bere zaldiarekin eta guzti.

Perutxo Lazon, Lezo fundatu zuen Gillermo Lazonen azken ondorengoa zen, eta legez berari zegokion Lezoko agintaritzan; Bera zen Lezo Haundiko leinuaren azken ordezkaria eta orain dela urte asko holako zerbaiten atzetik zebilen. Hondarribiako agintariak oso urrutituek zegoen gero, Perutxok itsu eta entzungorrena egin behar izan zuen zabalatarren egindakoekin, eta azken finean zabalatarrak izan ziren urte askotan herriaren benetako nagusiak, eta bere harrokeriak nekez jasan izan zuen zabalatarren nagusitasuna. Gainera lezoar gehienak zabalatarrekin bat egina zeuden, hauek nahiz eta piratak izan, lezoar herriarekiko jator eta zuzen jokatu bait zuten, eta asko

eta asko ziren herrian zabalatarren diruari esker mixeria gorritik atereak zirenak. Baina orain kartak beraren alde zeuden, Hondarribiatik bidali zioten troparen bitartez herria pakezturik, Zabarre garaiturik, bertako atsoa eta soldaduak hilik, eta orain Joxe Zabala bera bere eskutan bait zuen.

Lazonen agindu batez uztaikariek beren gezi zorrotzak jaurtiki zituzten, Joxe Zabalaren gizonak zerraldo erori ziren, eta baita Joxe bera ere gezi anker batek jota. Baina laister, bere erraien saskontasunetik indarrak atereaz, bere belaunen gainean jarri zen, besoan zeukan gezia kendu, kaiaraino zeuden metro exkasak korrika bete eta bere burua itsasora bota egin zuen. Oraindik bazeukan indarra soberan igerika bere barkuetaraino iristeko. Pentsatu eta egin, berehala bere ontziburuaren gainean bait zegoen, bere soldadu leialez inguratuturik.

Perutxo Lazonek ezin zezakeen sinistu, Zabala alde eginga zegoen, bere barkuan ! Baina oraindik ez zen berantegi, berak ere bazituen bere itsasontziak eta beraren atzetik abiatuko zen harrapatu arte. Hontatik ez du alde egingo ! -pentsatu zuen. Baina bere armada mugitu zuenerako Zabalaren barkuek Pasai Donibaneko punta pasata zeukaten, badiatik ateratzeko zorian. Hala ere jarraipenari ekin zion.



- AZABATZAKO ITSAS BURRUKALDIA

Sei bat urte pasata ziren, eta Zabala kapitainak hamaika euskal itsasoetan zehar zebilen alde batetik bestera, bere bandera zuri-beltzak kaioen artean kulunkatuz, bere gudontzien bitartez itsasoaren larrua ferekatuz. Bizkaitik zetorren eta Lapurdira zihoan, Baiona aldera zihoazten frantses merkatal ontzi batzuren atzetik. Aspaldi ez zuela Olagarro Haundiaren orrua aditu, baina atzo Donostiaren aurretik igarotzerakoan ohiartzun urrunetik bere orru ikaragarriaren antzeko zerbait aditzea iruditu zitzaion eta orain erne zegoen itxaroz, esperoz.

Bere hiru ontziak abaila ederrean zihoazten eta laister bere Lezo maitearen aurretik pasako ziren. Hortik ordu erdi batera Lezo pasata zegoen, eta Jaizkibeleko harkaitz zorrotzak bista bistan zituen. Jaizkibel mendia gero eta ederrago zegoen, basoz josita, orlegi orlegia, eder ederra, eta bere zuhaitz eta landareen artetik txorien txiokak etengabeki entzuten ziren. Bapatean, Azabatza izeneko base-

serriaren parean zeudenean Olagarro etsaiaren orrua aditu zen. Bera zen, madarikatua!, orain ez da bizirik irtengo !

Arpoia arront gamutza izan arren, oraindik prest zegoen Olagarroa aktzeko. Zorroztaria ate eta poliki poliki zorroztu egin zuen, bere barkuak Azabatzako zulora abiatzen ziren bitartean. Han zegoen Olagarro, han zegoen etsaia bere garroekin olatu apartsuak eginez, eta bere orruz marinelen belarriak gortuz, eta basoetako hegaztiak ixil eraziz.

Ezin zezakeen eskapo egin, harrapaturik zegoen, edo arpoia edo harkaitzak besterik ez zuen. Zabalaren arpoi trebeak bere bihotz beltza zulatu zuenean, bere besoak, bere garroak eroturik mugitzen ziren, urak eta harkaitzak astintzen; Holako batean bere garro batek Izar izeneko barkua kolpatu zuen zartako haundi batez. Marinelek, ikaraturik, beren burua botatzen zuten uretara, salbatu nahiean, baina oso berandu zen, itsasontzia bitan banaturik zegoen eta hondora zihoan bere marinelekin eta guztiz. Uretan murgiltzerakoan, sortutako zirriohoi-luak igeriten zeudenak harrapatu eta sakontasun ilunetara eraman zituen. Hori patu goibeltza gizon haiena !

Olagarrok ez zuen luzerik iraun, eta bere azken herio orrua jaurtikiz urperatu zen betiko, ura bere odol beltz zikinaz tintatuz. garaipen trixtea Zabala kapitainarena, baina Juanot Zabala mendekaturik zegoen. Ai arpoi beraz Perutxo Lazon, bere ama maitearen erahiltzailea zulaturik balego !, zer ez luke berak emango hori ikusteagatik !

Ilargik, (bere ontziburua) eta Eguzkik, (salbatu zen bestea) beren brankak okertu zuten Azabatzako zulo trajiko hortatik ateratzeko, eta hori eginda, eta harridura handiz, irteera moztan zieten zortzi gudaontzi ikusi zituzten. Lazonen ontziak !. Bai Lazonen ontziak zeuden, bere bandera urdin-gorriak ikus zitezkeen, eta baita bere subaga edo kanoi ugariak ere. Bapatean danbada batek, airea zeharkatuz, Zabala pirataren ontziburuan jo zuen sua eta heriotza sortaraziz. Ez zegoen zer egiterik, etsaia zeruetako izarrak baino ugariagoak bait ziren, baina hala ere Joxeren soldaduek ez zekiten amorerik ematen, eta prestatu ziren borrokaldirako.




Lazonen hiru barkuk Eguzkirekin egin zuten topo erasoaldia-ri hasiera emanaz. Eguzki barkua hiru izkinetatik sutan zegoen, etsaiez inguraturik, baina ez zuen etsitzen. Bitartean Ilargi, ontziburua, danbada batez jota, oso lasai mugitzen zen defenditu nahiean. Borroka luze baten ondorioz, Eguzkik hondoa jo zuen, eta bere defendatzaile gehienak berarekin hil ziren. Ilargin soldadu leial gutxi gelditzen

ziren, baina hala ere borrokan jarraitzen zuten. Holako batean Ilargik Lazonen armadaren lerroa trufatuz, alde egin ahal izan zuen itsas barrura, askatasunera, ... Bere barruan danak hilik zeuden, kanposantua zirudien, baina hala ere barkuak aurrera jarraitzen zuen.

Hil aurretik, borrokaldian larriki zauriturik suertatu zen Perutxok, burua altxatuz eta barkuari begiratzuz, bere brankan zutik zegoen Zabala kapitaina ikusi ahal izan zuen. Bizirik zegoen oraindik, bera hiltzera zihoan eta Zabal bizi bizirik, bera bakarrik bere barku beltzean, baina bizirik, berari begiratzuz, bere heriotzarekin disfrutatuz, eta bere ezpata odoltsuarekin zeru tentatuz.

-LANBROEN ARTEAN

Urteak igaro dira, mendeak, baina lezoarren artean Zabala kapitainaren oroimenak bizi bizirik dirau. Jendeak dionez, Joxe Zabala oraindik hamaika euskal itsasoetan zehar dabil, alde bate-tik bestera, bere bandera zuri-beltza eta Mikelatsen zortziburu orlegia aizeak harroturik azalduz. Eta ekaitzezko gauetan Ilargi, bere azken barkua, sutan baina osorik oraindik, Pasaiako badian sartzen da eta Zabarre aurreraino iristen da. Han egoten da Zabala kapitaina bere barkuaren brankan bere jaiotetxeari begira, eta bost bat minutu pasata, aldegiten du, itsas lanbroaren artean galtzen den bitartean.



JOSEBA PRESENTACION

(Marrazkiak: Lander Zurutuza)